

UDALEKUAK IZEN-EMATE IRIZPIDEAK 2025

Oiartzungo Udalekuak 2025ean izen emateko irizpideak.

Udalekuetan parte hartzeko:

- 1.- Herrian erroldatua egotea.
- 2.- Herrian eskolarizatua.
- 3.- HH3 eta LH6 bitarteko mailetan egotea, biak barne.

Aurretiko izen-emateak

Martxoa 3tik 13ra (biak barne)

1.-Pertsona bakoitzak aurretiko izen-emate eskaera bakar bat egin dezake hamabostaldi bakoitzean.

> **1go hamabostaldia (360 plaza)**

> **2go hamabostaldia (360 plaza)**

Pertsona baten izenean eskaera bat baino gehiago aurkezten bada hamabostaldi batean, bat bakarrik onartuko da eta besteak baliogabeak izango dira. Kasu honetan, baliozko eskaera zein den Oiartzungo Udalak erabakiko du, eta, gainera, eskatzaileak iruzur ahalegina egin duela irudituko balitz, aurretiko izen-emate guztiak baliogabetu ditzake.

2.-Plaza horietaz gain, udalak 40 plaza gehiago gordeko ditu hamabostaldi bakoitzean, udalak, beste zerbitzuetatik eratorritako beharrei erantzuteko.

3.- Aurretiko izen-emate eskaera **2025eko martxoaren 3tik 13ra** bitarte egingo da:

GAZTE OIARTZUN blogaren bidez: www.gazteoiartzun.net (arazoak izanez gero Abaraxkako kideak aurrez aurre edo telefonoz lagunduko dute)

4.-Aurretiko izen-emate zerrenda **martxoaren 17tik-20ra** jarriko da jendearen aurrean www.gazteoiartzun.net eta Ludotekan bertan.

Zozketa

1-Hamabostaldi batean plazen muga gainditzen ez bada, guztiak onartuko dira.

2-Hamabostaldi batean 360 plaza eskaera baino gehiago jasotzen badira, zozketa egingo da.

Zozketa martxoaren 26an egingo da Udal Pleno aretoan.

2025eko **martxoaren 28tik apirilaren 2ra zozketaren emaitzak** kontsultatu ahal izango dira www.gazteoiartzun.net eta Abaraxkan bertan (arazoak izanez gero Abaraxkako kideak aurrez aurre edo telefonoz lagunduko dute)

3.-Hamabostaldi batean plazarik gabe geratu direnak itxarote-zerrendan geratuko dira, zozketan zehaztutako hurrenkeraren arabera. Udalak beretzat jaso dituen 40 plaza horiek beteko ez balira edota plaza lortutakoren batek plazari uko egiten badio edo galtzen badu (aurrerago aipatutako arrazoiengatik) erabiliko da zerrenda. Halaber, hasiera batean osatu gabe dagoen hamabostaldian izena emateko aukera eskainiko zaie, hala badagokio, hurrenkera horren arabera.

4.-Familia-unitateko kideren batek zozketa bidez plazarik lortzen ez badu (eta beste batek bai), itxaron zerrendan lehentasuna emango zaio zerrendaren hurrenkera kontuan hartu gabe, dagokion moduan egoera hori egiaztatu eta gero.

Ordainketa eta plazen erreserba

1.-Izen-ematea onartua izan ahal izateko, plaza egokitu zaien pertsonak udalekuen ordainsaria 2025eko **apirilaren 11rako** ordaindu beharko dute eta baita beharrezko agiri guztiak aurkeztu. Epe horren barruan egiten ez bada, eskaera horri baja emango zaio eta plaza hori itxaron zerrendako hurrengoak beteko du –inor balego–.

Udalekuen ordainketa eta dokumentazio guztia (irudi-baimena eta osasun txartela) epe barruan ez egin eta ez aurkezteak, zozketan esleitutako plaza galtzea suposatuko du.

Ordaintzeko:

- **Ordainagiria.** Izen-emate orrian azaltzen diren banketxeetako kutxazain automatikoetan edo bulegoetan ordaindu ahal izango dute matrikularen prezioa. Ordainketa plaza esleitu den egunetik 2025eko apirilaren 11rako eginda egon behar du.

2.-2025eko **Maiatzaren 31a** arte plazari uko eginez gero, udalak dirua bueltatuko du. Data horretatik aurrera jasotzen diren uko egiteek ez dute diru itzulerarik suposatuko.